

### **Nortzuk gara:**

Harrera sareak, mugimendu feministako kideak, auzo elkartea, zaintza sareak, etxebizitzaren problematika lantzen dugun eragileak, politika migratzaleak salatzen ditugunak, antifaxistak, antiarrazitak, errolda eskubidea pertsona guztientzat aldarrikatzen dugunak, gure komunitateak eta auzoak maite eta bizi ditugunak gara. Gaur hemen gure auzoetako arazoei auzo elkartasun eta perspektiba integratzaile batetik lantzko beharra azpimarratu nahi dugu.

Egoera zaurgarrian dauden pertsonen diskurtso bazterzaileak ohikoak bihurtu dira gure inguruan; hori gutxi ez balitz, azken hilabetetan gazteen kontrako diskurtso arrazistak biderkatu dira, beldurrak, estereotipo okerrak eta segurtasun ezaren aitzakipean. Beste kasu batzuetan ultra eskuina bere interes eta azpijokoekin mezu horiek hauspotzen ikusi dugu eta arduragabekeria osoz astero hainbat medioetan bide hori elikatzen dituzten berriak ikusten ditugu ere.

### **Zergatik batu ginен:**

Azken hilabeteetan egoera larrien aurrean soilik poliziaren esku hartze gehiago eskatzen duen eta eskubideen urraketei entzungor egiten dion ereduaren aurrean, beste eredu bat eraman nahi izan dugu praktikara. Eedu hori mahaiganean jartzeko beharra ikusten dugu eta horretara gatoz gaur ere.

Elkarbizitzan jarri dugu abiapuntua eta helburu izatea nahi dugu. Dikotomia faltsuak alboratuz, auzokideen arteko elkartasuna izan da eskura aurkitu dugun tresna. Auzokide bezala erantzun eta eragin nahi izan diogu errealitateari.

Badakigu bizikidetza arazo larriak sortzen dituen egoera bat dagoela. Uste sendoa dugu auzokideok ardura hartu behar dugula gure auzoetan ematen diren arazo multzo anizkoitzen konponbidean. Bizi komunitarioen bidez, harreman bide eta antolakuntza forma ezberdinan bidez Gasteizko auzoetan aurkitzen ditugun arazo ugarien aurrean, gure planteamendua tentsio handiko koexistenzia egoeratik bizikidetza egoerara pasatzea da, bertan bizi garen pertsonen arteko konexio sozialak eraikiz.

Badakigu ez garela konponbidea lortzeko giltza nahikoa. Baino eredu bat planteatzen dugu, non auzokideok ondoan ditugun auzokideengatik kezkatzen garen, kriminalizatu gabe eta ditugun elkarbizitzar beharrei eta arazoei helduz. Auzokideen implikazioa bilatzen dugu auzokideen arazoen konponbidean.

### **Avenida Santiagon gertatutakoaren gure bertsioa:**

Elkarbizitzar elkarrekin bizitzea eta lan egitea da, elkar errespetatuz, enpatiaz eta begikotasunez, ni izateari zertxobait uko eginez eta besteengan gehiago pentsatzuz, adostutakoa errespetatuz eta konpromisoak betez. Hartu eman horretan arazoak suertatzen direnean, bi aldeen arteko apurketa ematen da. Kasu honetan, Judimendin, bizilagunen arteko elkarbizitzar arazo honi perspektiba horretatik heldu nahi izan diogu. Etxebizitzar blokean denbora bizitzen daramaten Judimendar eta lokalean bizitzen hasi diren Judimendarren arteko arazoak perspektiba eraikitzaile batetik begiratu, guztien beharrak kontutan hartu eta hauei erantzun bat ematea da, elkarbizitzar arazoa konpontzeko bidean eman beharreko lehen pausoa.

Elkartasun horrek mugitu gintuen bizilagun batek auzo elkarteari egoera honen berri eman zionean. Auzo elkartea eta auzoko bizilagunen sare, elkargune eta auzokideen arteko arazoak konpontzeko baliabide izateko aukera izan daitekelak mahai-gaineratzeko anbizioarekin ekin genion lanari. Egoera konplexua zen, emozioak pil-pilean (edo azaletik hurbil) zeuden, ulergarriak diren beldurrak nabaritzen genituen, baina argi geneukan izerbergaren punta besterik ez diren kontu hauek ezin zuten erroko problematiken perspektiba izkutatu.

Lehenengo urratsa, bizilagun guztien beharrak entzutea izan zen. Batzuen eta bestearen beharrak, noski, oso desberdinak ziren. Bakoitzak bere egoera zuen baina azpimarratzeko da elkarritzeta horiek izan ondoren, agerian geratu zela denon helburua eta ikuspegia berdina zela: guzioki merezi dugula bizi duin bat izateko baldintzak bermatuak izatea.

Bigarren urratsa, baliabide instituzionalak bilatzea izan zen; tamalez, orain arte etekinik gabeko bilaketa izan da. Lokalean aurkitzen ziren gazteen kontestua oso konplexua zen, bazterketa egoera batetik ateratzeko dauden zailtasunak gogor kolpatzen dute. Momentu zail horiei aurre egiteko, pazientzia, elkar-zaintza, akonpainamendua eta babesea beharrezko tresnak izan dira. Beste alde batetik, blokeko bizilagunek zituzten kezka eta zailtasunei erantzuna ematea ere ez da bat ere erraza izan. Hala ere era komunitarioan gure ekarpen xumea egiten saiatu gara, betiere soluziorako erramintak gure esku ez genituela jakinda. Finean batzuen beharrak asetzeak bestearen beharrak asetzea eskatzen zuelako, horretan datza soluzio integrala.

Baina egoera guztiz kaskartzeko, etorri zen lokaleko argi mozketa. Horrek lortu duen gauza bakarra da, duintasunez bizitzeko beharrezko baldintza apurrak guztiz deuseztatzea. Gauzak horrela, kudeaketarako zaitasunak areagotu, eta urduritasuna eta kezkak biderkatu ziren. Hori guztia gutxi balitz, zenbait mediok eta eskuineko alderdiek, putreak egiten duten antzera, beraien unea iritsia zela ondorioztatu zuten. Ez da ulertzen bestela zergatik ez zuten momentu horretarre gertatutakoa jakin nahi izan eta soilik dedikatu diren egoera nahasi eta beldurrezko eszenatoki bat diseinatzera, interes propioak lehenetsiz eta gizartea sutzeko inolako arazorik gabe.

Momentu honetan, Judimendira orain dela gutxi iritsi diren gazteen egoera zaugarria izaten jarraitzen duen arren, haien bidea duintasunez jarraitzeko bultzada eta babesa jaso dute. Hori dela eta ondoriozta dezakegu elkarbizitza arazoa amaitzeko bidea hartu duela. Auzokideon arteko antolaketa eta elkartasunari esker kudeaketa desberdin eta arrakastatsu baten bidea ireki da. Bide hau elkarrekin urratu dugu, era komunitarioan. Finean, sareak jostea eta elkarren arteko elkarritzetak hainbat arazori irtenbidea emateko baliagarria izan da. Bainan batez ere, elkar ezagutzeko eta bestearen arazoekin enpatizatzeko aukera paregabea eman digu. Hori atera dugun irakasgairik baliotsuena, gure arazoak bestearenak ere badirela eta batzuenak konpondu ezean, ezinezkoa izango dela bestearenak betiko konpontzea.

#### **Zerbitzu falta eta instituzioek alterbatibarik ez:**

Gasteizko Bizikidetzaren eta Aniztasunaren II. Planak (2023-2030) pertsona guztien hirirako eskubidea ezarri zuen jomugatzat, hau da, "hiri justu, inklusibo, seguru, iraunkor eta demokratiko batean bizitzeko, erabiltzeko, okupatzeko, ekoizteko, eraldatzeko, gobernatzeko eta gozatzeko ahalmena, ongizate komun gisa definituta dagoena". Dokumentu berean aitortzen denez, "hiria guztion ondasuntzat hartzeak esan nahi du bertan bizi diren pertsona guztiak hiriko baliabideak, zerbitzuak, ondasunak eta bizi-aukerak baldintza berdinan eskuratzeko eta horietaz gozatzeko eskubidea izan behar dutela, bai eta hiriaren eraikuntzan parte hartzekoa ere". Hirirako eskubide hori eraginkorra izan dadin, pertsona guztientzat bizitza duina ziurtatzeak duen garrantzia aitortzen da, "batez ere sistemak ziurgabetasun egoera batera baztertzen dituenentzat".

Paperak eusten dio, baina hau guztirako Gasteizek zerbitzu publikoen sare zabal eta eraginkor bat behar du, gaur egun erabat eskasa dena. Gasteizko erakundeei eta gizarte eragile guztiei eskatzen diegu, konpromisoetatik harago, gatazken kudeaketa positiboarekin, gizarte kohesioarekin, diskriminazio, kalteberatasun, segregazio eta gizarte bazterketako egoeren prebentzioarekin, kulturartekotasunarekin eta bizi eta elkarrekin bizi nahi dugun hiriaren sorreran ardurak har ditzagun herritar guztien parte hartza sustatuz eta bermatuz.

Gora Gasteizko auzoak

Gora auzokideak

Gora Gasteiz Anitza

#### **Quiénes somos:**

Redes de acogida, miembros del movimiento feminista, asociaciones de vecinos, redes de cuidados, los agentes que abordamos la problemática de la vivienda, los que denunciamos las políticas migratorias, las antifascistas, las antirracistas, los que reivindicamos el derecho de empadronamiento para todas las personas, somos las que amamos y vivimos nuestras comunidades y barrios. Hoy y aquí queremos insistir en la necesidad de abordar los problemas de nuestros barrios desde una solidaridad vecinal y una perspectiva integradora.

No son noticias los discursos discriminatorios contra las personas vulnerables, muy presentes en nuestros medios. Pero en los últimos meses se han proliferado los discursos racistas contra jóvenes en situación vulnerable, alimentado por el miedo, estereotipos erróneos y la inseguridad. En otros casos hemos visto a la ultraderecha respondiendo a sus intereses con su perversa forma de actuar alentar esos mensajes y con total irresponsabilidad también vemos todas las semanas en diversos medios noticias que alimentan ese camino.

### **Por qué nos unimos:**

Ante un modelo que sólo exige más intervención policial para arreglar situaciones graves y que hace oídos sordos a las vulneraciones de derechos, hemos querido llevar a la práctica otro modelo. Hoy vemos la necesidad de poner ese modelo sobre la mesa y por eso también estamos aquí.

Ponemos el punto de partida en la convivencia y queremos que ese sea el objetivo. Apartando las falsas dicotomías, la solidaridad vecinal ha sido la herramienta que hemos encontrado a mano. Hemos querido responder e incidir en la realidad como vecinas.

Sabemos que existe una situación que crea problemas graves de convivencia . Tenemos la firme convicción de que nuestros barrios deben tomar conciencia de la necesidad de apoyar y ayudar a solventar el amplio espectro de los problemas de su vecindario a través de sus vivencias comunitarias, tramas de relación y estilos de organización. Ante los muchos problemas que encontramos en nuestros barrios de Gasteiz nuestro planteamiento es pasar de una situación de coexistencia tensa a una situación de convivencia a través de la conexión social entre las personas que los habitamos.

Sabemos que no somos ni tenemos la solución. Pero planteamos un modelo en el que los vecinos nos preocupamos por los vecinos, sin criminalizarlos y abordando las necesidades y problemas de convivencia que tenemos. Buscamos la implicación de las vecinas en las soluciones de las vecinas.

### **La experiencia de la Avenida de Santiago:**

La convivencia es convivir y trabajar con respeto mutuo, empatía y simpatía renunciando un poco al yo y pensando más en ti y en los demás, respetando lo acordado y cumpliendo los compromisos para ello. Cuando se producen problemas de convivencia, se produce una ruptura entre dos o varias partes.

En Judimendi, desde esa perspectiva constructiva hemos tratado el problema entre los vecinos que llevan años viviendo en las casas del bloque situado en la Avenida Santiago y los vecinos que se encontraban viviendo en el local situado en ese mismo bloque. Se han tenido en cuenta las necesidades de todas y se ha intentado buscar y dar respuesta a ellas. Porque ese es el primer paso que hay que dar para solucionar el problema de convivencia.

Esa solidaridad fue la que nos movió cuando una vecina informó a la asociación de vecinos de este problema. La asociación de vecinos y la red de cuidados y solidaridad del barrio, como puntos de encuentro de los vecinos, pueden ser una herramienta para solucionar los problemas entre los propios. La situación era compleja, las emociones comprensivas y el vértice del "iceberg" que salía a la superficie no podía ocultar la perspectiva de las problemáticas de raíz.

El primer paso fue escuchar las necesidades de todos los residentes. Por supuesto, las necesidades de unos eran muy diferentes a las de otros; como la propia situación de cada cual. Cabe señalar que, luego de sostener estas conversaciones, el objetivo de todos era el mismo: tener las condiciones para una vida digna.

El segundo paso fue encontrar recursos; pero trabajo no rentable. El camino de los jóvenes que se encontraban en el local es muy complejo, nos encontramos con las dificultades de salir de una situación de exclusión. En estos momentos difíciles, la paciencia, el apoyo y la protección son componentes necesarios. Desde nuestra perspectiva comunitaria, intentamos hacer nuestro modesto aporte, sabiendo que no teníamos las herramientas ni somos quien las tiene que tener para salir de esa situación.

Por otro lado, tampoco encontramos respuestas a las inquietudes y dificultades de los residentes; y en parte, porque la satisfacción de las necesidades de unos depende de la satisfacción de las necesidades de otros; como dice la definición de convivencia, pensar en los demás y actuar con empatía es la clave principal de la convivencia.

Hemos recorrido este camino en la comunidad, sin que nadie más venga aquí, buscando respuestas y soluciones. Esta ruta nos ha dado la oportunidad de construir redes y conocernos, y aquí hemos encontrado la hoja de ruta más valiosa. Porque este era el componente principal para poner fin a este problema de convivencia.

Luego hubo un corte de energía en el local, por lo que las dificultades aumentaron, la ansiedad y las preocupaciones se multiplicaron. La electricidad es necesaria para vivir con dignidad hoy en día. Esto puso una carga encima de la otra y por si fuera poco, había llegado el momento de los medios y la derecha. En lugar de intentar confundir la situación e informar la situación actual, querían mostrar un escenario aterrador. Tarde y fuera de contacto con la realidad.

En este momento, aunque los jóvenes recién llegados a Judimendi siguen en unas situación de vulnerabilidad, han recibido aliento y protección para continuar su camino con dignidad. Por eso podemos concluir que el problema de la convivencia ha llegado a su fin. Gracias a la organización y solidaridad entre las y los vecinos se ha abierto el camino hacia una gestión diferente y exitosa. Hemos recorrido este camino juntos, de manera comunitaria. Finalmente, el trabajo en red y el diálogo entre sí ha sido útil para resolver diversos problemas. Pero sobre todo, nos brindó una oportunidad única de conocernos y empatizar con los problemas de otras personas. La lección más valiosa que hemos aprendido es que nuestros problemas son también los de los demás y que si no solucionamos los problemas de unos, será imposible solucionar los problemas de otros para siempre.

#### **Zerbitzu falta eta instituziek alterbatibarik ez:**

El punto de partida del II Plan de Convivencia y Diversidad 2023-2030 de la ciudad de Vitoria Gasteiz fija como horizonte el derecho a la ciudad de todas las personas que la habitan, entendido como “la facultad y potestad de habitar, utilizar, ocupar, producir, transformar, gobernar y disfrutar una ciudad justa, inclusiva, segura, sostenible y democrática, definida como bien común”. El mismo documento reconoce que “concebir la ciudad como un bien común significa que todas las personas que la habitan deben tener la capacidad de acceder y disfrutar, en igualdad de condiciones, de los recursos urbanos, los servicios, los bienes y las oportunidades de vida en la ciudad, así como a participar en la construcción de la misma”. Para que este derecho a la ciudad sea efectivo, se reconoce la importancia de asegurar una vida digna para todas las personas, “sobre todo para aquellas que el sistema relega a una situación de vulnerabilidad”, para contrarrestar las desigualdades.

El papel lo sostiene pero para todo esto Gasteiz necesita una red de servicios públicos que hoy en día es casi inexistente o completamente insuficiente. Pedimos a las instituciones y a todos los agentes sociales de Gasteiz que más allá de compromisos asumamos entre todas responsabilidad con la gestión positiva de los conflictos, la cohesión social, la prevención de situaciones de discriminación, vulnerabilidad, segregación y exclusión social, la interculturalidad y la participación ciudadana en la creación de la ciudad en la que aspiramos a vivir y convivir.

Gora Gasteizko auzoak

Gora auzokideak

Gora Gasteiz Anitza